

# Kualifikazinoko zentroetako ikasleentzako diplomak



Mungiaiko Behargintzak urtero-urterogaraten dituan Programen artean, Hasierako Lanbide Prestakuntzako “Mungialde” Zentroa bultzatzeko proiektuak burutzen ditu.

Zentro horrek eskaintzen dauen prestakuntza 16-18 urteko gazteei dago zuzendua. Urte biko formazioa emoten jake espezialidade jakin batzuetan. Ikasleek, 1. mailako kualifikazino profesionala lortzeko prestatzeaz ganera, graduatua beste bide batzuetatik eskuratzeko beharrezkoa dan prestakuntza lortzen dabe.

Irailaren 28an banatu jakezan Hasierako Lanbide Prestakuntzako “Mungialde” Zentroko ikasleei euren ikasketa diplomak. Diploma banaketa hori Mugire Txokoan egin zan. Bertan egon ziran Mungiaiko Alkate dan Izaskun Uriagereka, Amaia Martinez Cearra Ekonomia Sustapeneko Zinegotzia eta Gaizka Gabantxo Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren ordezkaria.

Diploma horreek “Berogailuen arloko langilea” eta “Sukaldeko langilea” espezialidadeetako ikasketak 2010ean amaitu ebezan ikasleei banatu jakezan.

Ikasle horreei ezeze, 2011n “Ileapaindegiko laguntzaile” eta “Autoen konponketako langile” espezialidadeko ikasketak egin dabezana ikasleei bere banatu jakezan diplomak. Guztira, 5 ikaslek lortu dabe DBHko graduatu-titulua.

Lerro honeen bidez eskerrak emoten deutsaguz Lan-zentroetako Prestakuntza Programan parte hartu daben enpresei, Hasierako Lanbide Prestakuntzako “Mungialde” Zentroko ikasleei euren enpresa eta lokaletan praktikak egiteko emon deutseen aukereagaitik. Hona hemen enpresa horreen zerrendea:

#### • Ileapaindegia:

- Iraide de la Torre
- Montpellier Estilistak
- Javier de Grande Estilistak
- JML Estilistak
- Iratxe Ileapaindegia
- Ferro y Murillo
- Leire Ileapaindegia

#### • Tailerrak:

- Arri Automozinoa
- Artolazaga Hermanos CB tailerrak
- Martxel tailerrak
- Neumáticos Vizcaya
- Elizondo SL tailerrak
- Largone tailerrak
- Automóviles Asua, S.L.

Hasierako Lanbide Prestakuntzako “Mungialde” Zentroko ikasleek Mungian antolatzen diran jarduera eta ekimenetan hartzen dabe parte. Aipamen berezia merezidu dabe: Kiroldegian egiten diran kirol-jarduerak, Gazte-gunea eta Udaletxea hobeto ezagutzeko antolatzen diran bisita gidatuak eta San Antontxu egunean zentroak daukan presentzia.

## Entrega de diplomas al alumnado del Centro de Cualificación Profesional

Mungialdeko Behargintza incluye, dentro de los Programas que desarrolla anualmente, el Centro de Iniciación Profesional de Mungialdea.

Esta formación está dirigida a jóvenes de entre 16 y 18 años, que cursan sus estudios durante dos años en las diferentes especialidades que se imparten.

El 28 de septiembre se entregaron los diplomas acreditativos de su formación al alumnado de dos promociones del Centro de Cualificación Profesional Mungialde. En el acto, que tuvo lugar en Mugire Txokoa, estuvo presente la Alcaldesa de Mungia, Izaskun Uriagereka, la concejala de Promoción Económica, Amaia Martínez Cearra y, en representación del Dpto. de Educación de Gobierno Vasco, Gaizka Gabantxo.

También se hizo entrega de los diplomas a los/as que han terminado su formación en 2011, correspondientes a las especialidades de Auxiliar de Peluquería y Operario/a de Reparación de vehículos.